



ARARTEKO ERAKUNDEA 2016. URTERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA


TXOSTENA

Hona hemen Ararteko erakundeak 2016. urterako prestatu duen aurrekontuaren aurreproiektua, Eusko Legebiltzarraren Araudi eta Gobernurako Batzordeak horren berri izan dezan eta, ondoren, bere onespena eman diezaion. Gastuak eta diru-sarrerak berdinduz, guztira **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ETA EHUN (4.557.100,00) EUROKOA** da.

Beraz, %50 murriztu da iazkoaren aldean.

Aurreproiektuko gastuen kapituluak banan-banan deskribatzen hasi baino lehen, labur azaldu nahi ditugu hori prestatzerakoan erabili ditugun irizpide nagusiak, baita ere iazko aurrekontuarekin alderatuta dauden elementu eta aldaketarik esanguratsuenak.

Jakina denez, finantza-sistemaren krisia larriki eragiten ari zaio botere eta administrazio publikoen finantzaketari, eta Europako eta Euskadiko agintari politikoek erabakiek gastu publikoa murriztera behartzen gaituzte. Ararteko erakundea hori lortzeko ahalegin itzela egiten ari da 2009ko aurrekontu ekitaldiaz geroztik, eta datorren urterako beste aurrekontu murrizketa bat egitea pentsatu da. 2009tik 2016ra, erakundearen aurrekontua oro har 555.427,21 euro murriztu da, hau da, %10,86 gutxitu da (grafikoa erantsi dugu).





Hala eta guztiz ere, aldi horrexetan, Arartekoaren jarduera areagotuz joan da urtetik urtera. 2015. urtean 8.608 jarduera burutu zituen herritarrei arreta eta zerbitzua ematearen arloan (kexa-espedienteak, kontsultak eta ikuskatzeko bisitak).

Jakina denez, kargua hartu eta hurrengo egunean ezustean sortutako gaitz batek eragotzi egin dit hilabete batzuetan kargu garrantzitsu honen berezko jarduerak burutzea, bereziki, gai hauen gainekoak: erakundearen aurrekontuaren egoera aztertzea eta gastuak gutxitu eta kudeaketa hobetzeko balizko proposamenak egitea.

Hori gorabehera eta nahiz eta, orain aste batzuk lanean hasi nintzenetik, denbora laburra izan dudan, nire onena ematen saiatu naiz, Arartekoaren zerbitzuko lantaldearen laguntzarekin, 2016rako aurrekontuaren aurreproiektu hau eta datozen urteetan jarraitu nahi ditudan ildo nagusiak aurkezteko. Espero dut, jaun-andreok, onberatasunez kontuan har ditzazuen arlo horretan gainditu behar izan ditudan bat-bateko arazoak.

Arestian esandakoa aintzat hartuta, hiru ideia nagusi azpimarratu behar dira aurrekontuaren aurreproiektu honetan:

1. Gastuari eustea

Egoera ekonomikoak hobera egin duela antzematen da adituen aurreikuspen gehienetan. Horregatik, euskal herri-administrazioek beren aurrekontuak gehitzeko asmoa dute. Haatik, Ararteko erakundeak herritarren eskubideak defendatzearekin lotura berezia daukanez gero, hazkunde ekonomikoko itxaropenak egiaz gauzatu arte eta, batez ere, enplegua sortu arte, 2016. ekitaldiko aurrekontua egitean, oro har %0,5 gutxitzea erabaki da, 2015eko aurrekontuarekin alderatuta.

Ildo horretan, zuzendari lanpostu bat kendu dugu eta beste zenbait doikuntza eta murrizketa egin ditugu beste partida batzuetan.

Aurrekontu-aukerak gutxitu diren testuinguru horretan, baliabideak gero eta gehiago optimizatuz eta, beraz, produktibitatea eta eragingarritasuna areagotuz kudeatzen ari gara lan-gehitzea, Arartekoak egiten dituen zerbitzuen kalitateari eutsiz. Informatika-tresna berri eta hobeak ezartzea (Arartekoa berriztatzeo programaren arabera), idazki, agiri eta argitalpenak pixkanaka digitalizatzea (papera gero eta gutxiago erabiliz) eta baliabide pertsonalak eta laneko denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko irizpide zorrotz eta estuak ezartzea, horiei guztiei esker, egiten ditugun zerbitzuen kalitatea mantentzen eta hobetzen ere ari gara, nahiz eta



zerbitzu horien kopurua nabarmen ugartu den. Beste bi alderdi ere kontuan izan behar ditugu: Ararteko erakundearen lan egiten duten langileen motibazioa eta, horren ondorioz, lanerako dedikazioa. Horrela, erraz egiaztatzen da zorrotzasunaren eta gutxieneko gastuaren irizpideak ezarri direla etengabe, egunetik egunera zorrotzagoak gainera.

2. Erantzun egokia eta eragingarria erakundera datorrenari

Aurrekontuaren bidez modurik eragingarrienean antolatu nahi dira erakundearen baliabideak, helburu hau lortzeko bidean aurrera egiteko: erantzun ezin hobea ematea edukiari eta epeari dagokienez, arreta berezia eskainiz talde ahuletako kideei edo gizartearen baztertuak edo horretarako arriskuan daudenei.

Illo horretan, etengabe ahalegintzen gara herritarrek erakundearekin harremanetan jartzeko bideak errazten, komunikazio-bideak eta harremanak sendotzen, bai euskal herri-administrazioekin (kexak azkarrago eta behar bezala konpontzeko), bai gizarte zibileko elkarte eta erakundeekin ere.

Horrela, gardentasun-ataria izenekoa garatzen ari gara. Horri esker, edozein herritar edo herri-agintaririk eskuragarri izango du Arartekoaren aurrekontua, horren bilakaera eta aurrekontuko partiden zertarakoa. Era berean, horren bitartez erraz jakin ahal izango du ondasun eta zerbitzuen lehiaketak kasu bakoitzean zer enpresari esleitu zaizkion eta zenbatean, baita erakundeko langile guztien soldatak ere.

Laburbilduz, Ararteko erakundeak gardentasun printzipioa zorrotz ezartzeko asmo sendoa du, uste baitu horrela erakundeak egiten dituen jardueren balorazio egokia ematen zaiela herritarrei.


3. Administrazio ona izateko eskubidea

Ararteko erakundearen jardura tresna garrantzitsua da, dudarik gabe, administrazio ona lortzea ahalbidetzeko. Administrazio ona izateko eskubidea aitortzen da Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean (41. artikuluan) eta herri-gobernantzaren arloko nazioarteko beste tresna batzuetan.

Administrazio ona izateko eskubidearen eremu horretan, Ararteko erakundeak ikuspegi gaitua du, herritarrengandik gertu dagoelako eta haiek egindako kexak aztertzen dituelako.



Horri esker erakundeak eskaintzen duen informazioa politika publikoak ezartzeko aprobetxatu beharko litzateke, kalitateko euskal administrazio eragingarriagoa, gardenagoa, irekiagoa eta arduratsuagoa lortzen laguntzeko.

 Helburu hori erdiesteko, aurrean duzuen aurrekontuaren aurreproiektuak aukera emango dizue erakundeak bere jardura egitean ezagutzen dituen errealitateak ebaluatu eta aztertzen sakontzeko. Horrexegatik erabiltzen ditu gastuen hainbat partida gomendio orokorrak egiteko, hausnartu eta herritarrek parte hartzeko foroak antolatzeko, baita zenbait jardunaldi eta ikastaro ere, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean.



GASTUEN EGOERA

1. KAPITULUA – LANGILEEN LANSARIAK

Kapitulu honetako kreditua guztira **HIRU MILIOI ETA LAUREHUN MILA (3.400.000,00) EUROKOA** da, soilik zenbait doikuntza egin ondoren; beraz, %0,29 gehitu da joan den urtekoaren aldean.

Aurrekontuan agertzen den soldata-igoera Eusko Legebiltzarraren langileentzako aurreikusita dagoena bera da, Eusko Jaurlaritzak igoera hori aintzat hartu baitu euskal administrazio orokor osorako.

Gainerakoan, Gizarte Segurantzari dagokion partida indarreko araudiko azken aldaketetara egokituta agertzen da aurrekontuan.

2. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK

Kapitulu honetako kreditua, guztira **MILIOI BAT, EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA ETA EHUN (1.127.100,00) EUROKOA** da.

Horrela, gastua %2,84 gutxitu da 2015ekoaren aldean.

6. KAPITULUA – EGIAZKO INBERTSIOAK

Kapitulu honetako kreditua, denera, **HOGEITA HAMAR MILA (30.000,00) EUROKOA** da. Hortaz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioari eutsi zaio.



SARREREN EGOERA

2014. urteko superabita 133.508,84 eurokoa izan zen. Superabit hori sarrera gisa gehituko da Ararteko erakundearen 2016ko aurrekontuan, 4. kapituluan –Transferentzia Arruntak–, 411.01.00 partidan –Aurreko urteetako superabita–.

Gure ustez, kapitalak ematen dituen korrituengatik 491,16 euroko ondare-sarrerak izango ditugu; aurrerakin itzulgarriak bihurtzean 3.000,00 euro jasotzea espero dugu eta beste argitalpen batzuen partidan, berriz, 100,00 euro. Hori kontuan izanik, sarreraren aurrekontua eta gastuena berdinduko bada, Eusko Legebiltzarrak honako kopuru hau transferitu behar du Ararteko erakundearen alde: **LAU MILIOI, LAUREHUN ETA HOGEI MILA (4.420.000,00) EURO.**

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 17a